



**2018KO URRIAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Bere ezin etorria adierazi du Ioseba Hernandez Madinabeitia zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2018ko uztailaren 24an egindako ohiko eta 2018ko urriaren 2an egindako ezohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.


III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 6 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespene proposamena irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen gastuetako partidak, alde batetik ikastolako lanak direla eta, San Benito Ikastolari diru laguntza ematea aurreikusteko da, eta beste alde batetik estali gabeko igerilekuak egiteko lurrak eskuratzeko egin zen jabetza kentzearen balio justua eta geroratze interesak ordaintzeko dira eta guzti hauen finantzaketa egiteko sarrera moduan diruzaintzako gerakina erabiliko da.



Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du igerilekuak egiteko, lurrak eskuratzeko jabetza kentzea egitea erabaki zela, eta horren ondorioa dela orain epaia, eta etorkizunera-ko, biderik egokiena hori ote denari buruz gogoeta bat egin beharko litzakeela, denon alde-tik. Gaineratzen du kreditu aldaketaren alde bozkatuko dutela, bertan dauden kontzeptuekin ados daudelako.

Alkateak esaten du jabetza kentzea egitearena denek hartutako erabakia dela eta bere garaian beste biderik ez zegoelako hartu zela. Esaten du baita ere, geroago ere aukera izan zela, orain finkatu den balio justuaren azpitik, prezio bat ordaintzeko, baina auziarekin aurrera jarraitzea erabaki zela.

Hau guztia honela, eta gaiaren inguruan eztabaidatu ondoren, eta ogasun batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaideen guztien aldeko botoekin, honako erabakiak hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 6 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
III	Finantza gastuak	180.460,00
VI	Inbertsio errealak	519.540,00
VII	Kapital transferentziak	192.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		892.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	892.000,00 €
GUZTIRA		892.000,00 €

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Oro-korra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.



IV.- GURUTZEKO BERRURBANIZAZIOA ETA GARAJEEN ERAIKUNTZAREN ESLEIPENA.-

Udal osoko bilkurak, 2018ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, Gurutze 1-2ko berrurbanizazioa egiteko eta Gurutze 1-2ko lurrazpiko garajeak egiteko proiektuak onartu eta Lazkaoko udal plangintzaren arau subsidiarioetako 13 H.J.A. –Hirigoi-en C.10.15.1 lursaila besterentzeko eta ondoren bertan garajeak sustatu eta eraikitzea, alde batetik, eta Gurutze 1-2ko berrurbanizazio lanak egitea bestetik, prozedura ireki erraztu bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartzea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2018ko ekainaren 12an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, proposamen bakarra aurkeztu zen, Construcciones Murias S.A.k aurkeztutakoa.

Aurkeztutako proposamena ontzat eman zuen kontratazio mahaiak eta esleipena egiteko egin beharrekoak egin zitzaizkien errekrimendua egin zitzaion.

Construcciones Murias S.A.k behin betiko fidantza jarri du hala nola esleipena egin ahal izateko beharrezko den gainantzeko dokumentazio guztia ere.

Garajeetan interesa dutenen zerrenda dauden garajeak baino izanik, zozketa ere egin da, eta orain hautatuak esleipenduna izateko proposatutako enpresarekin kontratu pribatua izenpetzeko fasean aurkitzen da prozesua.

Hau guztia kontuan izanda, eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Esleipena Construcciones Murias S.A.ren alde egitea. Construcciones Murias S.A.k, udalari, "c.10.15.1" partzelaren besterentzeagatik, ordaindu beharrekoa, 27.219,00 € gehi BEZri dagokion 5.715,99 € da. Esleipendunak baita ere garajeen eraikuntzaren proiektuaren idazketaren kostua ordaindu beharko du, 26.700,96 € gehi BEZri dagokion 5.607,20 €. Urbanizazio lanen esleipenaren prezioa 674.905,15 € gehi BEZri dagokion 141.730,08 € da.
- 2.- Aurreko akordioak gauzatzeko egin beharreko gainantzeko jarduketak aurrera eraman ditzan alkatea ahalduntzea.

V.- SASIETAKO ESTATUTUEN ALDAKETAREN ONARPENA.-

Sasieta Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzarrak, 2018ko irailaren 24an egindako bilkuran, besteak beste, bere estatutuen aldaketa proiektua onartu zuen, aho batez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso ondoren.

Sasieta Mankomunitateak, bere Presidenteak izenpetutako idatzi bidez, udal honi eskatu dio bere osoko bilkurak estatutu aldaketa hau onartu dezala, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 11 d) artikulua xedatutakoa jarraituz, mankomunitatea eratzeke behar den quorumarekin onartutako udal batzarraren erabakiaren bidez (gehiengo osoa).



Estatutuen aldaketa hau, bere espedientean dagoen dokumentazioan ikus daitekeenez, ondorengo gai hauek eragindakoa izan da: Itsaso udalerrri berriko udalak Sasieta Mankomunitatera atxikitzea eskatu du; hondakinen arloan egon diren arau-aldaketak; tokiko eskumen propioen zehaztapen handiagoa; apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren xedapen iragankorra betetzeko beharra; ordezkaritza eta boto sistema haztatuak, biztanleria kopuruaren araberakoak, sartzeko beharra.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du Sasieta inguruan ez dutela informazio askorik izan, eta ez bakarrik puntu honen inguruan baizik eta orokorrean. Esaten du baita ere azkena jaso dutena beraien postontzietan kanpaina baten berri dela eta kanpaina horren gai nagusia zigorra dela, eta guzti hauei buruz hitz egiteko foroak irekitzea egoziagoa litzakeela, orain bozketara eramatea baino.

Alkateak erantzuten dio esanez gauza batek ez daukala bestearekin zer ikusirik. Hemen bozketan jartzen dena estatutuen aldaketa dela eta bestea kanpaina bat dela, eta berak ere kanpaina horri buruz postontzian jasotakoa dakiela.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 5 abstentzios (EH Bildu), eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botoekin, Sasieta mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea erabakitzen du.

VI.- UDAL LANGILEEN SOLDATAK.-

EUDELeK zirkularra bidali du "UDALHITZ negoziazio kolektiboa – 2018ko ordainsarien igoeren gomendioa" izenburupean. Bertan esaten da 2018ko uztailaren 4an argitaratu zela Estatuaren Aldizkari Ofizialean Estatuaren 2018ko aurrekontu orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea, eta lege horrek aukera ematen duela administrazio publikoen langileen ordainsariak igotzeko.

Lege honek dioena ikusita, EUDELeK egokitzen jo du gomendio hau egitea EAEko udalei:

- Aipatutako 18.Bi artikulua leheneko paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.
- Bestetik, 18.Bi artikulua bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokionez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar.
- Aurreko 18.Bi artikulua laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari kalterik egin gabe, 2017ko ekitaldiko* aurrekontuan superabita duten EAEko udalerriei gomendatzen diegu soldata masaren %0,3ko igoera gehigarria baimen dezaten, dituzten finantza- eta aurrekontu- aukeren arabera. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikulua laugarren paragrafoan aipatutako edo aplikatu ahal diren bestelako lege-formulen bidez. 2017ko ekitaldian aurrekontuko



**LAZKAOKO
UDALA**

superabitik izan ez duten udaletan, EUDELeK gomendatzen du soldata masaren %0,2ko igoera egitea.

Alkateak esaten du EUDELen gomendioa kontuan izanda, eta gaia ogasun batzordean informatua izan ondoren, kontuan izanda %0,25eko igoera ahalbidetzen duen Ministro Kontseiluen akordioa argitaratu zela, eta bestalde udal honek 2017 ekitaldian superabita izan zuela, eta beraz udal langileen soldatetan %1,8ko igoera aurkezten dela proposamen gisa 2018-01-01etik hasita, eta %2,05ekoa 2018-07-01etik aurrera.

Hau guztiaren, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin proposamen hau onartu egiten du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita zortzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

**LAZKAOKO
UDALA**